

BALIABIDEAK

Proiektu hau garatzeko hainbat baliabide beharrezkoak dira. **Baliabide fisikoei** dagokienez, etorkizunean makinak fabrikatzeko tailer bat eta bulego bat beharko lirateke, gure produktuak eta zerbitzuak ezagutzera emateko. Horrez gain, gimnasioko makinak, pantaila interaktiboak eta plan pertsonalizatuak sortzeko sistema informatikoak beharrezkoak izango dira. Gure makinak probatu eta saltzeko, gimnasioak eta salmenta-puntuak izatea garrantzitsua da, bezeroek produktua zuzenean ikusi, probatu eta esperimentatu ahal izan dezaten.

Bestalde, **baliabide intelektualen** artean daude izen eta irudi komertzialak besteengandik bereizteko, patenteak besteek ideiak ez kopiatzeko, diseinu eta software propioak, egile-eskubideak eta bezeroen datu-basea, bakoitzaren errutinak, helburuak eta dietak ezagutzeko. Horiez gain, gimnasio edo kirol-zentroekin egindako akordioek gure produktua lehenago probatzeko aukera emango lukete.

Giza baliabideei dagokienez, adimen artifizialean espezializatutako software-garatzailleak, diseinatzaile industrialak, marketin eta salmenta taldea, administrazio- eta finantza-arduradunak, teknikariak eta produktu-kudeatzaile bat beharko dira.

Azkenik, **finantza-baliabideak** bazkideen hasierako inbertsiotik (5.000 euro), [banku-finantzaketatik](#) (30.000 euro), diru-laguntzetatik, inbertsitaile pribatuetatik eta Getxoko Udalaren [laguntzetatik](#) etorriko lirateke.

